

IRITZIA

Gemma
Agirregomezkorta

ERREPORTAIA

Kristau-ikasbidea
Elgoibarren

UDALETXETIK

Uraren zerga
kobratzeko
politika berria

GEHIGARRI

BEREZIA

Larunbat
arratsaldeetan
dendak irekita

Π;T:PUT

Begoña Gabilondo,
Itzaropena
abesbatzako kidea

KIROLA

Urasan iko Futbito
Txapelketa martxan

BARREN

1997ko urriaren 17a
V. urtea - 210. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Kristau fedearen lehen pausoak

q1011,
ELINME

ir" Maitasunaren neurria neurririk gabe maitatzea da" San Agustin

VIEDIOTZA eta KIER GIA KONTSULTAT EGIA K1ALISIE1 ABORATEGIA

- M etaboll smoak eta elikadurak eragindako gora-beherak.
- Haur eta gaztetxoek hazkundera eta koskortzea.
- Gizentasuna. Medikuntza estetikoa.
- Analisi kliniko, mediko eta biologikoak.

Cesar G. de Martino
3.500.SS. Mediku kolegiatua

Irena Rodriguez Atxurra

933-E Biologo kolegiatua

Egiguren kalea, 6 - EIBAR Teli 20 60 44



KONPARA EZAZU MATERIALEN KALITATEA

Mendaroko Udalaren
alboko etxeak

Marmolezko
portalak/Gineako
egurrezko enpanelatua
Gineako tarima
Abebay-zko zokaloak
Sukalde, gela eta
egongelan eskaiola
Eskilarako eskubandak
Gineako egurrezkoak
Antena parabolikoa
PVCzko pertsianak
Ilogailua
Kalefazioa eta ur beroa
txapazko berogailuekin
Roca etxeako komunak
Isolamendu termikoa

14.000.000 pta.tik aurrera
Etxeak laister eskuratzeko
aukera
(12 bakarrik geratzen dira)



PRID101-10XES

MENDARO

Promociones Inmobiliarias Mendaro

Tel: 75 51 68 - (94) 491 23 19





GEMMA
AGIRREGOMEZKORTA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Bizitzaren zauriak

Gogorra bada ere, askotan geure iritziek astindu heharrak izaten dute, horrela, bihotzean ditugun zauriak erakutsiz.

Jendeak ez du uste inork inor hil dezakeenik, baina hilketak gertatzen dira; bai gobernuaren gerra zikinaren bitartez, bai ETaren horroka armatuaren bidez, Goardia Zibil eta Ertzaintzaren koarteletan jazotzen dena ahaztu gabe.

Bahiketak, legez kanpoko dispertsioa, lanpostu politikoak aprobeztatuz Iapurretak bunitu, kale borrokaren bidez baztmak apurtu, PPKoek deitu duten bezala "Ermuko izpiritua-ekin" zapalkuntzak onartu eta abar luze bat dira Euskal Herriak une honetan pairatzen duen egoera.

Egoera hau dela eta, batzuk erabat errudun sentitzen gara. Zergatik? Ez garelako Marten bizi! Nahitanahiez, gizar-tearen partaide gara. Errudunak denok gara, baina dirudienek ekintza hauek bultzatu edota burutzen dituztenak ez dira errudun sentitzen. Errua pilota balitz bezala besteei leporatu eta kitto!

Miguel Angel Blancoren heiotza tristearen ondoren, milaka lagun irten ziren kaleetara. Hauek eskubide osoa zuten horretarako, noski. Baina kaleratu ez ginenok ere, bageneukan geure arazoia, bada, ados egonik ere, han sortutako manipulazioarekin ez genuen ezer jakin nahi.

Denok dakigu ETak bahitu eta tirokatu zuela, baita jakin ere, haren biziaren truke gobernuari eskatzen zitzaiona, hau da, aspaldidanik legez eginda egon behar zena, euskal presoak Euskadira ekartzea. Beraz, azken finean Miguel Angelen bizia gobernuaren esku zegoen une horretan. Baina badirudi legea betetzea hatzuei bakarrik eskatzen zaigula, zeren

eta kasu honetan legea bete ez duena Gobernu da. Jakina, Aznarrek Fidel Castrori esandakoak, "Mueva Kubarako bakarrik balio omen du.

Harrigarria da honek eragindako erreazioa. Batzuk lotsatu egiten dira euskaldunak izateaz, hau zorakeria! Harro asko nago ba ni euskalduna izateaz...

'Euskaldunak bai, ETA ez', entzuten dudanean, badituz hori horrela den errezeloak.

Konpara ditzagun euskaldunak judutarrekin. Sionismoaren alde ez egotea (nahiz eta Palestinarren ekintza guztiekin ados ez egon), ez da mundu semiten aurka egotea, hau arrazakeria litzateke. Beti egon da judutarrenganako nolabaiteko gorrotoa, eta zoritxarrez egongo da. Konparaketa ulertuz gero, nire ustez gauza bera gertatzen da euskaldunekin.

Azkenaldian alderdi naziek izugarriko gorakada izan dute eta entzun izan da hauen ahotan HO-

"Batzuk lotsa tu egiten dira euskaldunak izateaz, hau zorakerial"

LOKAUSTOIA gezurra izan zela. Kapazak izango ote gara gu ere geure historia aldatzeko? Hots, Euskadin arazo politikorik sekula ez dela egon eta egindako borrokek (tartean, armatua) asper-asper eginda eta beste zereginik ez zeukaten lelo batzuek hasi zutela... Nork esan halakorik ez dugula entzungo?

Ezpartzial izatea nahi izanda ere, geure jorera erakusten dugu. Bi begiekin begiratu ordez, ezkerre edo eskuina erabiltzen dugu soilik. Baina ez gaitzezen zeharo itsutu eta, kontuz! Izan ere, itsuen herrian begi bakarrek...

Bitartean duela urte mordo bat Gabriel Arestik ikusi eta idatzi zuen bezalaxe gaude.

NOLA IDIAK UZTARRIPEAN
EUSKAL HERRIA DAGO





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

74 41 12


Publizitatea:

s' 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasono Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirrezaldegi, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edume Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Gui116, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi Le6n, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe, Lelre Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDALUA	SS-1 .038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak. Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



fundazioa
fundación

Oraindik astia dago

2.000 urterako hiru urte geratzen direnean, 1997ko urriaren 12an hain zuzen, Herri Batasunaren zuzendaritza auziperatua izan da. Pekatua? Gatazka hau konpontzeko kalean dagoen BAKE PROPOSAMEN BAKARRA kaleratzea, ETA erakundeak Gobernu Espainolari proposaturiko bake akordiorako oinarriak jasotzen dituen bide bati publizitatea ematea.

Iruzur fiskalari zukurik gehien ateratzen diotenak, GALEko arduradunak, Roldan edo Urralburu izendatu dutenak kalean dauden bitartean, Euskal Herriaren askatasuna defendatzen dugunok epaiketak, atxiloketak, torturak eta "enfrentamentu" armatuak pairatzen ditugu. Baina Mahai Nazionalaren kontrako prozesu politiko hau ez da gertakari isolatua. Gazteriaren kontra bereziki areagotu diren neurri zapaltzaile berriak, preso politikoaren giza eskubideen aurrean Gobemu espainolak eta Paktuko kideek agertutako jarrerak, Ezker Abertzalea isolatu eta suntsitzeko politika berriro suspertzeak, Auto-determinazio Eskubidea zanpatzen segitzeak, elkarrizketari behin eta berriz uko egiteak, konponbidea baino, gatazka gero eta gehiago areagotuko dute.

Ez gaitezen engaina, epaiketa politiko hau Euskal Herriaren aurkako epaiketa da. Espainolak izan nahi ez dugunok, obediente eta sumiso ez garenek beraiek sortu, interpretatu eta aplikatzen dituzten legeen menpe gaude. Orain Mahai Nazionala izan da, baina kontuz, intsumiso, gazte borrokalaria, feminista, sindikalista, euskaltzale, langile, baserritar, ekologista etab., mutu, gor, itsu eta espainol nahi gaituzte. Ventas eta Ermuako izpirituak "A POR ELLOS" esana baitu dagoeneko.

Batzoki, Elkartetxe etab. i eraso egiten dietenek zer diferentzia ikusten dute PP, PNV, EA, IU eta PSOEren artean? Gerra zikina, tortura, atxiloketak, epaiketa politikoak, Udaletxe lapurketak, euskal militanteak asesinatzea txalotzen dutenak, "Españia una y grande" menpean eroso bizitzea helburu dutenak, neurri faxista berriak (manifestazio ilegal batean parte hartu edo GORRA ETA (M) esateagatik gartzela ekarriko dutenak) baieztatzen dutenak, Estatutua (berez lege organikoa dena)

Madrilen eskale bezala mendigatzen dutenak (orain mobilizazioak, Egibar jauna?), horiek harrizten dira euskal gazteriaren erantzuna ikusiaz? Zer nahi dute, sufrimendua Ezker Abertzaleari erantsi eta kalean lasai ibiltzea?

Oraindik astia dago. Ezker Abertzaleak eskua luzatua dauka. Bake Proposamena mahai gainean dago. Ez dugu nahi inorentzako sufrimendu gehiago. Euskaldunak euskaldun izan nahi dugu eta horrenbestez geure erabakiak geuk hartu behar ditugu.

Beraz, mobilizatu beharra dago, horrelako ASTAKERIARIK gerta ez dadin.

Kurutz Castrillejo Gabilondo

Non dago Adierazpen Askatasuna?

Joan den astelehenean, hilak 13, berriro hasi zen Herri Batasunako Mahai Nazionalaren kideen aurkako epaiketa faxista. Honen aurrean Zazpiki Irratiak honako galdera hau egin nahi dizue: non dago Adierazpen Askatasuna?

Altematiba Demokratikoaren edukiarekin bat etorri zen bere garaian Herri Batasuna, eta horregatik, bakea proposatzeagatik alegia, epaitzen ari dira.

Honenbestez, Zazpiki Irratiak zioen, dio eta esanen du beti egongo dela Adierazpen Askatasunaren alde, nondik eta norengandik datorren erreparatu gabe. Eta une honetan, beste edozein unetan beste edozeinekin bat egingo genukeen bezala, epaituekin gaudela adierazten dugu.

Adierazpen Askatasuna, guztion eskubicie a!

Epaiketa faxistarak ez!!

Zazpiki Irratia

Mendaroko Udalaren oharra

Mendaron argitaratzen den kiliBARREN gehigarria egiteko ez dago kolaboratzailerik. Abendura bitartean ez da kiliBARRENik kaleratuko nahiz eta BARREN astekaria buzoi guztietan banatuko den orain arte bezala. Idazteko gaitasuna, gogoia eta ilusioa izatea nahikoa dira kolaboratzailea izateko. Anima zaitzete!



LAID1221

Zinera joaten den herritar batek galdera hau luzatu nahi dio Udal Kultura Sailari:

"Zergatik ez dute Herriko Antzokian ezer ere jaten uzten? Beste herri batzuetako zine aretoetan ez dute jatea debekatzen eta herri askotako aretoetan denak ere egon badaude."

Udal Kultura Saileko kide batekin harremanetan jarri

gara eta hona hemen erantzun diguna:

"Kultura Batzordean hartu zen erabakia da. **Arrazoiak bi izan ziren:** batetik, edozer gauza jaterakoan **ateratzen den zaratak** albokoari traba egin diezaiokeela. Eta bestetik, jaterakoan **butakak zikindu egiten zirela**. Horrexegatik jarri genuen Herriko Antzokian jateko debekua".



• Bi gazte etorri dira Urasandiko gazteen izenean kexa hau azaltzeko eskatuz: "Herri **Eskolako futboloko kanpoetako argiak pizten ez dituztelako** kexatu nahi dugu. Gure nahia iluntzetan futbitoan jokatzera izaten bada ere, ezin izaten dugu ezer egin argirik ez delako egoten. Argiak piztuta edukitzea eskatzen dugu mesedez".



TXALOA

• "13 urteko lau mutil gara eta **Gurutze Gorriko Gazte Taldea** txalotu nahi dugu urte osoan aguantatu gaituztelako. Eskerrak eman nahi dizkiegu kanpinean eramantuztelako eta urtean zehar txango eta irteera mordo bat egin ditugulako eurekin: San Pedrorra, Gabonetako parke-
era etab."

BAI, ES£



Pello Arrieta

Artean aditua

Aste honetako telefono deia Pello Arrieta historiagile elgoibartarrari luzatu diogu. Izan ere, azken egunotan gora-behera batzuk izan dira Apraizko errotaren etorkizunaren inguruan. Depuradora dela eta, kolokan omen dago errotaren etorkizuna. Gai hau aitzaki hartuta, herri baten ondare artistikoak duen garrantziari buruz berba egin dugu Pelloarekin.

- Zergatik zaindu behar da herri baten ondare artistikoa edo historikoa? - Historia artxibategietako dokumentu idatziez gain dokumento arkeologikoen (etxeak, elizak, burdinolak, eskulturak, pintura eta abar), gure arbasoen bizimodua, kultura, ekonomia, gizartea, gustu estetikoa eta abar isladatzen dutelako.

- Jendeak erreparatzen al dio horri? Ba al dugu horrelako gaiekiko kontzientziarik? Bai, asko gara erreparatu ez ezik gure arbasoen herentzia maitate ere egiten dugunok. Honetaz, kontzientzia gero eta haundiagoa da, hezkuntzak eta turismo kulturalak balore historiko artistikoak ezagutarazi egin baititu.

- Elgoibarren zaindu al dugu gure ondarea zure ustetan? - Elgoibarren XIX. mendearen bukaeratik gaur egun arte asko murriztu da arkitektur ondarea, betirako desagertutako eraikin eta arkitektur elementu asko garapen ekonomikoaren izenean bota delarik, iraganarekiko errespetuzko irtenbide bat bilatu gabe.

Nolakoa da agintarietako duten sentsibilitatea? - Agintarietako, orohar, perspektiba zabalagoa eduki eta testuingurua hobeto ezagutu beharko lukete, ekonomia ez baita historiaren motore bakarra.

LS1:r-c4 11

 **ZENTRO IivAC PSIKIMEDIKOA**
Gida eta arma baimentzako azterketak

Larunbatak:
11:00etatik
13:00etara

Goizez: 10:00-13:00
Arratsaldez: 15:00- 17:00
Ostiral arratsaldeetan itxita

Arikitxa Zubia, 1 beheka (Unzeta ferreteria zena) Tel./Faxa: 20 05 01 EIBAR

 **PINTURAK**
PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 beheka. 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK PINTAKETA

Krislau izateike bidea

Borondatez egiten dute lan. Euren helburua, haurrei kristautasunaren baloreak transmititzea da, txiki-txikiak direnetik uler eta barnera ditzaten. Gauzak asko aldatu dira. Gaur egun kristau ikasbidea irakasteko erak ez du zerikusirik duela 50 urtekoarekin. 25 emakume inguru aritzen dira katekista lanetan Parrokian. Haurrei kristau ikasbidea emateaz gain, bestelako ardurak ere izaten dituzte: Errege Kabalgata, domeketako umeen meza.... Aste honetan Parrokiak Ubitarten duen lokalera hurreratu gara eta bertan kristau fedea nola lantzen duten ikusi dugu. Hona henten bertan jasotakoa.



katekistak kristau baloreak transmititzen saiatzen dira.

ji Kristau ikasbideabeti, egon la azaldu digute katekistek. 1. mailan hasi eta 6. mailara arte luzatzen da kristau ikasbidea. Halere, "konfirmazioa ein bitxartian dauden kursuetako umientzat parrokuak aisialdiko klasiak ematen ditxu. Ez ditzaten galdu ikasitako baloreak eta ikasbidea jarrai dezaten", adierazi digu Pilar Osorok.

Astean behin bilera izaten dute katekistek eta landu beharreko gaiak aztertzen dituzte guztien artean. Taldeka eikartzen dira, ez baita berdina txikiei ematea edo jaunartzea egin behar duten haunak edo 4., 5. edo 6. mailako neska-umutlak izatea. Maria Dolores Beristainek azaldu digunez, "liburu bat dakagu eta hor gai desberdinak **datoz**. Klasia eman aurretik parrokuakin egoten gera eta berak esaten digu klase bakoitzian zer ein bihar dogun gutxi gorabehera. Hala ere, gero bakoitza ahal daban bezela moldatzen da ze askotan ezin izaten da dana landu".

Kristau baloreen transmisioa

Kristau ikasbidea ez da elizako eta erlijio kontuak azaltzera mugatzen. Hori baino askoz gehiago da. Maria Doloresek esan digunez, "nik nere umieri kurso bukaerarako erakutsi nahi diuetena da Jaungoiko bat daukela eta egia dala existitzen dala. Nik nere espe-

rientzia azaltzen diuet eta gero bakoitzak esperimendu bihar daban zerbait da". Halere, normalena kezka eta galdarak sortzea izaten da eta horiei erantzuna aurkitzen saiatu behar izaten dira katekistak, "Jaungoikoa non dagoen galdetzen dute askotan, ez dutela ikusten esaten dute. Horren aufferan, haizea ere nahiz eta ez ikusi sentitu egiten dela esaten diet. Azken finean, fedea bihotzeko begiekin ikustea da. Fedea ezin da razonatu". Jaungoikoan, Jesusen eta Ama Marian sinesten badute nahikoa lorpen izan dutela uste dute denek, "hortik hasita landu bihar dia gero beste balore guztiak. Baina lelengo, oinanaixa izan bihar dabe oso garbi".

Txikiak direnean dena berria izaten da umeentzat, "gero, jaunartzea egin ondoren beste era batera hasi bihar zera planteatzen dana. Ni baloriak transmititzen saiatzen naiz. Pertsonen artian errespetua egon bihar dala, elkar maitatu bihar dogula, ez dala inbidia-rik euki bihar, eta abar...", adierazi digu Pilarrek.

Liburua, diapositibak, pelikulak...

Lehentxeago aipatu dugun bezala, liburua dute erreferentzia puntu katekistek. Ordu erdiko





Liburuak dute Jesusen bi

klaseak dira eta gehienetan ez da nahikoa izaten gauza guztiak lantzeko. "Ahal darian piskat gehixo luzatzen dou baina gaur egun umiek danetik dake, solfeua dala, dantzia dala, partikularrak dala... Baina ahalegintzen gera piskat beranduo amaitzen", jakinarazi digu Modesta Iriondok. Diapositiba eta pelikula emanaldiak ere izaten dituzte, "umiei asko gustatzen jakue ze oso arina eta bisuala izaten da dana. Pelikulia ikusi eta gero, komentau eitzen dou danen artian, zer esan dan, ze balore ikusi dian, zela landu bihar dian, zeinekin...". Halere, gaur egungo umeak ez dira erlijioaren garrantziaz jabetzen, "askotan ez dakixe otoitzian zer esaten daben. Eta Jaunartzia gehixo izaten da erregaluak hartzeko eguna lehenengo akiiz Jaunaren gorputza hartzea baino", adierazi digu Modestak. Gainera, haurrek


etxean zein heziketa jaso duten asko igartzen da, "urtian zihar otoitzak erakusten dizkiegu baina hurrengo urtian, uda eta gero berriz hasten diazenian, ahaztu eitzen jakue. Etxian erreztzen ez badabe, ez

dia ezertaz akordatzen". Modestak esan duenez, "lehen, etxian amama eta aitxitxa egoten zian eta eurekin erreztzen gendun. Oin ez dao holakorik". Duela dexente urte, gauzak beste era batera izaten ziren. Pilarrek, Modestak eta Maria Doloresek "battalak" gogoratzen dituzte, "gure artian, kristau ikasbidian ia zeinek gauza gehixo zakixan ibiltzen ginan. Alde batetik gehixo ikasten gendun ze beti nahi zenduan bestiak baino gehixo jakitzia eta gainera bazakigun zer ari ginan esaten, esanahixa ere ulertzen genduan. Oingo umiak

askotan buruz ikasten dabe baina ez dakixe zer ari dian esaten".

Fedearen heziketa emakumeen esku

Katekista guztiak emakumeak dira. Arrazoia? Gizonak ez direla prest azaltzen, denbora faltarengatik behar bada. Katekistek esan diguten bezala, "oin arte, gizonak tailarrian itxen zaban lan eta emakumia etxian geratzen zan. Normalian kristau ikasbidian orduak arratsaldeko 5etan hasitxa izaten dia eta andrak dia libre gaudenak. Bes-



Leiko lgo mailan hasten dira kristau ikasbidian.

tela, gizonetzkuak berdin-berdin emango zeben klasia". Kontua da, gaur egungo gazteen artean bai gizon eta bai emakumeek etxetik kanpo egiten dutela lan eta gero eta estuago dabiliza parrokiaren katekistak topatzeko. Maria Doloresek ondo baino hobeto gogoratzen du nola hasi zen katekista lanean, "duela bost urte inguru izango zen. Nere seme bat kristau ikasbidian hasi behar zen eta parrokoak ia zergatik ez nintzen katekista hasten galdetu zidan. Neri erlijioak eta elizak bizitza ematen didate? Nola ukatuko diot nik Jaungoikoaren hitzari nire denboraren zati txiki bat? Oso gustura nago".



ION PEREZ

5 urte

"Kristau ikasbidera etortzen naiz Jesusiton bizitza ikasteko. Nik ondiok ez dakitx zein dan eta nun bizi dan".

MIRIAM GOYA

5 urte

"Jesus eta Jaungoikua zeintzuk dian ikasiko dot kristau ikasbidian. Jesusito on-ona izan zan era kristau ikasbidian oso ondo pasatzen dot".




Ba al duzu Guggenheim musen bisitatzeko asmorik?



PEDRO BALZOLA

48 urte, baserritarra

Zaila izango da, nik baserrixan lana dakat eta. Telebisivan ikusi dot museua kanpotik zelakua dan eta nerretzat modernoegixa da.



ANTONIO SANCHEZ

57 urte, almazenista

Gustura joango nintzateke baina Ian kontuengatik oso zaila egingo zait. Kanpotik nola geratu den asko gustatu zait, garai honetarako itxura aproposa du.



MARIA LARRAÑAGA

41 urte, etxekoandrea

Ez, ni ez naiz holakuetan ibiltzen. Ez jata tokau ondiok museua zelakua dan ikustia eta ezin dot iritzirik eman horren bueltan.



LOLI FREIRE

41 urte, etxekoandrea

Gustatuko litzaidake, interesgarria izan behar du. Ikusi dudanaren arabera erai-kuntza polita da. Diru asko gastatu da baina gauzak ondo egin nahi direnean...



MARISOL COLMENERO

19 urte, ikaslea

Beharbada larunbatean bertan. Kanpotik ikusita ez zait gehiegi gustatu, forma arraroak ditu, modernoegia. Baina barruan zer da goen ikusi nahi dut.



IGOR DIEGUEZ

19 urte, ikaslea

Momentu honetan ez dakat asmorik. Inportantzia gehixe eman jako, haundikerixia ikusten dot nik. Ez dot uste Bilborako egokixa danik.



CASCANUECES

Mekorazio artedurako materialetan espezializatatako denda. 9tonako klase hauek ematen dira:

9iniura
(egurra, igeloak, erresinak, beira eta marmolinak
9apel pasia eta, abarrekin egindako lanak
4Akzarieabirzaclaia eskulanak

Trenbide kalea, 23 Tel: 74 20 67

Lanusa eta aranUak

Bilboko Guggenheim Museoa (BGM) denon ahotan dabilen gaia bada ere, askotan ez da behar hezala aztertzen. Baditu alde txar eta onak. Txarrak lehendabizi: BGM eraikitzeke erabakia ez zen kultur instituzioetatik hartu, baizik eta ekonomikoetatik. Laskurain izeneko jaun batek badaki zerbait guzti honetaz. Helburua, Bilboren berpizte ekonomikoa zuen. Hala ere, kultur proiektu bezala "saldu" zen eta garrantzikoena, Kulturako prespujestuetatik joan ziren dirurik gehienak eta babesik gabe geratu ziren ordura arteko kultur ekimen ugari. Desagertu egin ziren pedagogia aldizkariak, artistentzako bekak... Gutxitu egin ziren sorkuntzarako, musikarako, literaturarako laguntzak. Kultur munduko jendea itolarrian dago oraindik "Arregiren Katarsia" izenez ezagutu zen haren kulpaz.

Inolako debaterik gabe eta isilpean burutu zen akordioa. Kultur Kezka izeneko taldean bildu ginen 500 kulturegile ingururi "los mismos perros con distinto collar" deitu zigun Arregik. Ordura arte, saritu egiten gintuen eta asko gustatzen zitzaion argazkietan gure ondoan agertzea. Hala ere, BGMren haserako proiektuari neurri berri eta apalago batzuk ezarri zitzaizkion eta ia 10 mila milioi gutxiago gastatu dira hori dela eta. Kultur Kezka egiten zituen aipamen nagusiak: Debate soziala izkutatut izana, BGM eredu zaharreko museo garestiegia zela, dozena bat hirik atzera botatakoa, artea ikusteko eredu amerikarraren sukurtsala izan daitekeela eta ez dela esaten zertan lagunduko dion horrek euskal artegintzari. Pariseko Beau-

bourgekin alderatua, esaterako, turismo leku hutsa da BGM. Han herritarrek "erabili" egiten dute museoa: burutegiak, arte eta musika tailerrak...

Arkitektoa, Thoms Krens jaunak inposatua izan zen eta ez zitzaient bertakoei aukerarik ere eman. Bost mila milioi pezeta gastatu dira Guggenheimen marka 20 urterako erabiltzeagatik eta, sinatutako kontratuaren arabera, Krens bera erabakiorra da BGMko kolektzio iraunkorra erosteko orduan (6 mila milioi gehiago). Zaila da egin diren kalkuluek betetzea: urtean milioi erdi bisitari. Urtero sortuko den mila milioiko defizita enpresa pribatuek ordaindu beharko dutela esaten da baina ez dute, oraingoz, halako mezenasik aurkitu.

Eta bukatzeko, alde onak. Eraikuntzan asmatu egin du Gehryk eta etxe enblematiko bat eman dio Bilbori. Artelanek, oster, nahiko lan eukiko dute aren izaerarekin konpetitzen baina, lehen New Yorken bakarrik ikusi ahal genitzakeen lan asko, orain Bilbon ikusi ahal izango ditugu artezaleok. Hortik aurrerakoak ikusteko daude eta desiratzen nago proiektuaren alcelekoen itxaropen guztiak egia bihurtzeko.



HASIER ETXEBERRIA

ISPILUARI BEGIRA



Pkuv--1ko

Ferreiro

GOROSTIZA
liburudendakoa

- **Zeri aterako zenioke txartel gorria?**
Kutsadurari.
- **Bizitza porteria balitz, zein gol izango litzateke pozgarriena?** Seme-alabak izatea.
- **Zein egoeratan sentitzen zara jokoz kanpo?**
Elkarrizketa honetan.
- **Zeini dedikatuko zenioke liburu bat? Zein?**
Nire alahei "Los Pilaes de la tierra".
- **Fikziozko zein pertsonaiaren abenturak bizi nahi zenituzke?** - "Capitan Trueno"renak.
- **Sekula irakurri al dizkizute eskuak?**
Ez, ez dut sinesten horrelako gauzetan.
- **Kumunera irakurtzeko zerbait eramaten al duzu?** - Ez.
- **Zeri buruz idatziko zenuke liburu bat?**
Ertaroari buruz.
- **Umetako zein jolas gogoratzen duzu?**
Futbola, Txorromorropikokalloke...
- **Posible balitz zer ezabatuko zenuke zure bizitzatik?** - Operazioak.
- **Eta zer azpimarratuko?**
Haurtzaroa.
- **Bizitzako zein elementu gordeko zenituzke karpeta batean?**
Familia, Iana eta osasuna.
- **Zerk eragiten dizu barrea?**
- **"Videos de Primera" saioak.**
- **Jaso duzun azken oparia?**
Kolonía bat baina ez ditut erahiltzen.
- **Hobbyrik ba al duzu?**
Bai, arrantza eta buzea.
- **Umetan zer izan nahi zenuen?**
Futbolista.
- **Munduaren amaiera bihar balitz, zer egingo zenuke gaur?**
Nire familiarekin egun lasai bat pasatu.
- **Ikusi al zenuen infantaren ezkontza?**
Ez, eta aldizkariak ere ez ditut irakurri.

• Gestio informatikako aplikazioei buruzko ikastaroa

Eusko Jaurlaritzak diruz 1a-gunduta, gestio informatikako aplikazioen ikastaroa antoiatu da azaroaren 3tik aurrera. 350 orduko iraupena du eta doan izango da. Izena emateko Kultur Etxera zuzendu edo Pedro Muguruza eskola zaharretara jo hilaren 24a baino lehen.

• 1\$ aziertoko kiniela Bgoibarren

Errosario kaleko estankotan 13 aziertoko kiniela tokatu zen joan den asteburuan. Saria guztira 740.000 pta.koa izan da, berez bi baitira saritutako kinielak, biak berdinak. Hortaz, saria kinielan jokatu zuten 138 lagunentz banatu dute, 69 lagunentz osatutako bi "peña"k jokatzen baitute astero-astero Kastrillejotarren estankotan. Saridun bakoitzak, beraz, 6.000 pta. jaso ditu. Ez da horrelako sari bat tokatzen den lehen aldia. Duela hila-bete, 13 aziertoko kiniela bati esker, 20 lagunentz artean 3 milioiko saria banatu zen.

Paraguayko industria ministroaren bisita Fatronik eta IMH ikastetxera

Ertaimerikako Paraguay herriahaldeko Fomento Saileko Idazkaria nagusia, Guillermo Sosa ministroa, hemengo industria ministroaren parekoa dena, Elgoibarren izan zen joan den ostegun goizean Ibaitearte industrialdean kokatuta dagoen Fatronik enpresan eta IMH ikastetxean. Industria ministroa Eibarko Tekniker enpresan ere izan zen Paraguayko gobernu eta Tekniker eta Fatronik enpresen artean egiten ari diren proiektuaren berri jasotzeko. Bi enpresa hauek Paraguayko gobernuarekin eta herrialde horretako Industriaren Ikerketarako Zentro Metalurgikoarekin ari dira elkarlanean. Sortzen ari diren proiektuak

metalmekanikaren arloko ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeak garatzea du helburu. Proiektuak 500 milioi pta.ko kostua du.

Fatronik eta Tekniker enpresek azpiegitura eta ezagutza teknologiko ezberdinak eskainiko dizkiete Paraguayko hezkuntza zentzoei. Guillermo Sosa ministroak proiektuan parte hartzen ari diren kolaboratzaileen maila teknologikoa zer-nolakoa den ikusteko aukera izan zuen. Europar merkatuan konpetitua ahal izateko Euskal Herriko enpresek bizi duten berregituraketa industrialaren berri ere izan zuen. Bisita amaitzeko, Erreminta Makinaren Institutua bisitatu zuen azkenik ministroak.



Txileko irakasleak IMHn

Joan den ostiralean iritsi ziren Elgoibarrera Txileko 20 irakasle IMH zentroan prestakuntza ziklo batean parte hartzeko asmoarekin. Astelehen eguerdian ongi-etorria egin zitzaion udal areto nagusian alkatearen eta IMHko hezkuntza arduradunen eskutik. Abenduaren 14ra bitartean ikastetxe deszentralizatuen gestio-egitaraua, diseinu kurrikularra eta diseinu horri erantzuten dioten plan berriak garatuko dituzte.

Bkarteen eta Gazte Asanbladaren arteko bilera

Pasa den asteazkenean herriko kolektiboan eta Gazte Asanbladaren arteko elkarlanaren nondik-norakoak finkatzeko bilera egin zen. Bi aldeak bat etorri ziren herriko gazteriari elkarlan honek ekar diezaiokkeen onuran. Elkartek Gaztetxea euren elcintzetarako kontuan hartuko zutela adierazi zuten eta Gazte Asanbladak unean uneko harremanak sortu eta aurrera eramateko konprometua hartu zuen. Gazte Asanbladaren nahia kolektibo guztiekin harremanetan jartzea izan bazen ere, gonbitea jaso ez zutenei Gazte Asanbladakoekin harremanetan jartzea eskatzen zaie.



800 lagun Ehun Kiloren agurreko kontzertuan

Gaztetxea lepo zegoen joan den zapatu gauean Ehun Kiloren azken kontzertua zela eta. 400 pta.ko sarreraren truke ordu eta erdiko musika heavy saioaz disfrutatze aukera izan zen. 600 lagun horiek ordu eta erdi osoa izerditan blai pasatu bazuten ere, merezi izan zuela argi dago han entzun ziren "beste bat" eta txaloen arabera. Ehun Kilo taldean jo izan dutenak eta azken aldian jotzen aritu diren guztiak pasatu ziren taula gainetik. Jon Zabalararen ahotsean, zaletuek eskatutako "Tango" eta Ehun Kiloren betiko abestiak entzuteko aukera izan zen. "Ehun kilo" balio izan zituen kontzertuak, dudarik gabe.




Begirale ikastaroa martxan

Hasi da dagoeneko Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiaka Begirale Taldeak Udalaren dirulaguntzarekin antolatu duen Begirale Ikastaroa. Aurkezpena irailaren 27an izan zen eta 1998ko maiatzaren 16ra arte luzatuko da. Ikastaroak 200 orduko iraupena izango du eta begirale beniek Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua eskuratuko dute. Gainera, begirale berriek Atxutxiamaiaka B.T.n parte hartzeko aukera izango dute. Argazkian, izena eman duten 30 ikasleak ikus daitezke Institutuko gimnasioan.



• Andres Alberdiren testu-liburu berria kalean

Herri Institutuko euskara irakasle eta Euskara Mintegiko kidea den Andres Alberdik, Batxilergoko 1. mailan Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasteko testuliburuaren lehen zatia kaleratu berri du. Ikasturte osorako hiru testuliburu izango dira eta beste biak prestakuntza fasean daudela adierazi digu euskara katedradun eta irakasleak. Irungo Institutuko Markos Balentziaga irakaslearen laguntzaz ari da Andres Alberdi testuliburu hauek prestatzen. Batxiler berrietako adar guztietan euskara ikasgai amankomuna denez, ikasle guztiak erabiliko dituzte liburu hauek. Testuliburu hau herriko liburutegietan eskura daiteke.



• Herri Eskolako ikasleak Murtdan

Herri Eskolako 6. mailako 15 ikasle eta irakaslea hilaren 2 lean Murtzia abiatuko dira aste osoa pasatzeko asmatan. Eskola Ibiltaria delakoaren barruan egingo dute irteera hau. Calatayud eta Kanariar irlետako Puerto del Rosario herrietako ikastetxeekin batera zenbait jardueratan parte hartuko dute komunitate hori hobeto ezagutzeko asmoz. Ingarugiroa, historia eta artea landuko dituzte, mintegiak eginez eta museoak etab. bisitatuz.



550 bat lagun Pilar ikastetxearen egunean

Joan den domekan Pilar Eguna ospatu zuten Pilar ikastetxean. Goizean 550 bat ikasle, guraso, irakasle eta ikasle izandakoak ikastetxeko patioan elkartu ziren meza entzuteko. Ondoren, Gurasoen Batzordeak eman zuen luntxean indarrak berreskuratze aukera izan zuten. Datorren asteartean, San Viator eguna ospatuko dute. Aste osoan zehar futbol eta pilota partiduak jokatu dituzte 5. mailatik DBHko 3. mailara bitarteko ikasleak. Astearte goizean domina banaketa izango da eta arratsaldean jai egingo dute.

• **Mankomunitatea eskualdeko enpresen errolda egiten ari da**

Deba Beheko Mankomunitatea eskualdeko 700 enpresei buruzko errolda egiten ari da. Bide batez, 5 tekniko osaturiko taldeak aholkularitza eskaintzen die hondakin industrialaren gestioa nola hobetu dezaketen esanaz. Irailean hasita, Deba Beheko 8 herrietako 700 enpresen produkzio prozesua aztertu eta Hondakin Solido Urbanoak (RSU), Hondakin Industrial Bizigabeak eta Hondakin Toxiko eta Arriskutsuak nola gestionatzen dituzten ikertzen ari dira. Momentuz badirudi harrera ona izan dutela enpresen aldetik nahiz eta, "enpresa gehienek ez dakiten hondakin industrialen gestioa nola egin". Ikerketa honen bidez, arazoak bilatu eta gestio hobe baten abiapuntuak ernan eta etengabeko aholkua eskaini nahi da.

• **Gotzon Arrietak Euskara Batzordeko lehendakari utziko du**

Gotzon Arrieta, Euskara Batzordeko lehendakariak, laga egingo du bere zinegotzi kargua astelehenean izango den Udal Plenoan. Gotzon 1995eko hauteskunde munizipalen ostetik izan da batzorde buru.




Uraren zerga kobratzeko politika berria diseinatu du Udalak

Gaur arratsaldean izango den plenoan Elgoibarko Gobernu Batzordeak uraren zerga kobratzeko politikaren inguruan zenbait berrikuntza proposatuko ditu. Aldaketek kontsumo gutxiko komertzio eta etxeetan eragingo dute batez ere. Besteak beste, komertzioek industriaren zerga bera ordaindu behanean, zerga berezia izango dute eta kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko 70 pta, ordaindu beharko dute eta ez 100 pta., orain arte bezala. Era berean, kontsumitu beharreko kopuru minimoa hiruhilabeteko 15 metro kubiko izango dira eta ez 18 metro kubiko. Etxean kontsumitu beharreko kopurura ere 30 metro kubikotik 25era jatsiko da. Horrez gain, hiruhilabeteko 60 metro kubiko baino gehiago kontsumitzen duenak zenbaki horren gainera dagoen metro kubiko bakoitzeko %25a gehiago ordaindu beharko du. Neurri honen bitartez, gehien kontsumitzen dutenak izango dira zerbitzua gehien ordainduko dutenak.

Bestalde, Ondasun Inmuebleen (IBI) zerga %1a igoko da, Ekintza Ekonomi-

koena (IAE) %3,8a eta Zirkulazio zerga %3,2a. Neurri hauekin Elgoibarko Udalako Gobernu Batzordeak orain arteko politikari eutsi nahi omen dio, ahalik eta igoera txikiena eginez. Dexente igoko den zerga Eraikuntza eta Obrei buruzkoa da, %14ko igoera izango duelarik.



Politika berriak kontsumo gutxiko komertzioetan eta etxeetan eragingo du.

Udaletxean sexu diskriminazioaren kontrako plana jarri da martxan

Astlehenean, hilak 13, sexu diskriminazioaren kontrako plana jarri zen martxan Udaletxean. Proiektuak urtebeteko iraupena izango du hasiera batean eta parte hartuko dute EMAKUNDEK, aholkularitza emanaz, eta EHUKo Giza Sikologia departamentuak, azken honek proiektua koordinatuko duen tekniko bat jarriko duelarik. Lehenengo fasean EHUKo teknikoak gaur egun Udaletxean bizi den egoeraren azterketa egingo du eta aurkitutako akatsei konponbidea aurkitzen saiatuko dira bigarren fasean.


Udaletxeko sail desberdinetako langileak gustura daude proiektuarekin eta prest azaldu dira parte hartzeko. Gillermo Garate alkatearen hitzetan, planaren helburua, "udaletxeko langileen ar-

tean egon daitezkeen desberdintasunak ezabatzea da. Asmoa gizon eta emakumeak era berdinean neurtzea eta aukera berdinak izatea da edozein gai aztertu eta erabakiak hartzeko orduan. Sexu diskriminaziorik ez egotea bermatuko du planak".



Merkatuko marka onenekin

Zugandik
oro gertu



GEHIGARRIA

BBV. AILUNTANG GARATE

0182.0317.91

0011506514

120.000 Beza gabe

GARATE
Jantzidenda

San Bartolome, 13 Tel: 74 11 29

TON

JanIztOfel2ofa

San Bartolome, 37 Tel: 74 06 27

FERPI MODAK
San Bartolome, 38
Tel: 74 08 15



CAS11 ASTIGARRAGI



Kirolak

Errosario, 16-18 Tel: 74 32 66

Maldagan
Jantzidenda

San Frantzisko, 20 Tel: 74 40 98



(...Yftwodensia.

010VQ

OINETRHORII



San Frantzisko, 34 Tel: 74 02 35



San Frantzisko, 29 Tel: 74 32 06



**AGUIRRE
SASTRERIA**

San Frantzisko, 30 Tel: 74 03 41

**Elaciharrers, zuman eta zure
famillarenean plentsatuz, zenhalt
cienciaK ercluteula zahalicau cluota
larunhat arratsalcleetan ere**

**ASTICALICA EILCLAU GALAIT JASITZWENLA
FELLI /%0LAU MIJLIJAMIENLIALAZ CO/CLUSIDA
ION IIANIZIDESIDA MAILACAN JANTZWEST A
Acuwia SASILELIA Cscrt z.tt thriusr t
IDITXINIXU LILULLUESLA**

**41erKainlitc) cnenarekiwis thGe
berrienareitin. zneanolilk sc 1149 1P11.
||Lartarchat arratsaldeetan eciten 411udrun
ercsKeta baKcitzarenoatik
fresKaaarri eclu Kate hat hartzera
ecnhiclatuKc zaittion.**

Zatoz Elgoibarrera!

,aric kalean • Erresaric kalean • Erresaric kalean otrusaric kalledn • Luesari




**asx
XSTIGIRRI**

**Errosario 16-18
Tel: 74 32 68**

**Jantzi zaitez aurtengo neguan
kirol nnodako markarik onenekin.
25 urte eman ditugu herritarren
zerbitzura, eta hori zuen konfidantza
mantentzeko garantia da.**





GARATE

Janzidende

San Bartolome, 13 Tel: 74 11 29

in Cartchme kalean • San Lartulleme kalean • San Lartuleme kalean • San



*F
e
r
p
i*




*m
o
d
a
k*



San Bartolome, 38
Tel: 74 08 15

lazatik beherantz • Flazatik beherantz • Ulazatik beherantz • Ullazatik beh



c.)1kozod(weia-

.1, riria oni

atea eth) pastela • Latea etic uastela • Varea ech) pastela • Latea edc Pastella



ION

Yaniziofenofa

5Cogui", czniec z efa

b as ich-rtra

San Bartolome, 37 Tel: 74 06 27





Maldagan
Jantzidenda

Lois 70
JEANS & JACKETS

San Frantzisko, 20
Tel: 74 40 98



lletea eW pastela • Ai, bexarnelat • Vetea eta pastela • Al, bexamella: • Ketea



AGUIRRE
SASTRERIA

San Frantzisko, 30 Tel: 74 03 41



5San Ffran12_19-vo kafleari • _an Ffran171111s_e 5oPearn • irapaUlsPi-scicka[lean o lam



OINETAKORK



San Frantzisko, 34 Tel: 74 02 35

Madalatik acra • Madalatik acra • Madalatik acra • Madalatik aora Madalal

au=



San Frantzisko, 29
Tel: 74 32 06



Parrokiako abesbatzean ibilitako zenbait kidek Itxaropena sortu zuten orain dela 5 urte. Nerea Ugarteren zuzendaritzapean, batean eta bestean hainbat emanaldi eman dituzte urte hauetan zehar eta gaur gaueko 22:30etan eta bihar arratsaldeko 8etan urteurrena ospatzeko bi kontzertu eskainiko dituzte Foruen Enparantzan, teklatuak, kitarrak, baxuak eta perkusioak lagunduta. Gainera, kamisetak atera dituzte Itxaropenaren anagramarekin. Aste honetan Begoña Gabilondo. Itxaropena abesbatzako sortzaileetariko bat ekarri du gu gure artera.

"Itxaropena koruak 5 urte betetzia pozgarrixa da"

Itxaropenez sortu al zen abesbatza?

- Baietz esan leike. Boto gehixen "Itxaropena" izenak jaso zitxuan, usten dot horrek dakan esanahixak eragina euki zabala.

— Duela gutxi sortua, zuzendaria gaztea, abeslall gazteak...

- Oso gaztia. Batez ere oin, ze jende gazte asko sartu da. Eta Nerea, zuzendarixa gurekin hasi zanian ondiok 17 urte bete gabe zauan. Oso gaztia zan baina oso ona baitxa ere eta zakan edaderako oso heldua. Musika kontuetan oso jantzitxa zauan eta gogor hartu zaban korua hasiera-hasieratikan. Gainera, kontuan euki bihar da gehixenak nausixak ginala eta nik uste dot berak, gaztia zanez, gogor hartu nahi izan zabala, gauzak ondo eta serixo eitxeko.

— Halere, zuzendaria lortzea kostatu egin zitzaizuen, ez?

Bai. Gu Parrokixako korotik etorritxakuak ginan eta estatusa nahiko altua zakagun ze garai haretan obra oso inportantiak kantautakuak ginan, esate baterako Mozart-en "Koronazioko Mezia" kantatzen lehenenguetarikuak izan ginala uste dot, Vivaldiren "Gloria", Handel-en "Mesias"... Felix Lodoso izan zanian Parrokixako koruko zuzendarixa oso lanzaua izan zan eta obra inportantiak kantau geni-txun. Ho'rregatik, jendia bildurtu eitzen zan eta atrebi-tzen ziazanak igual diru gehixegi eskatzen ziguten... Azkenian Nerea Ugartekin hasi ginan eta oso pozik gaude.

Orain Kultur Etxeko so-toan entsaiatzen duzue.

- Bai, baina berez gusturen Kultur Etxeko ganbaran ibiltzen gera. Sonido aldetik eta askoz hobeto dau. Baina arazo bat dau. Kultur Etxeko hitzaldi gelan zeozer

dauanian ezin izaten dou entsaiorik egin ze dana entzuten da. Oin sotuan gaude ze egun hauetako kontzertuetan musikuekin jo bihar dou eta askoz hobeto entsaiatzen da hor.

— Jende faltan omen zaudete.

- Bai, batez ere gizonezkuak falta dia haina danentzako zabalik dao. Zenbat eta gehixo izan, orduan eta hobeto. Oin jende gazte asko sartu da baina gero batzuk laga eitzen dabe eta jarraipena emateko inportantia da jende fijua egotia. Guk herritxar danak animauko genitxuzke Itxaropenan kantatzera, atiak darentzat daude zabalik.

— Eta zein ezaugarri behar da abesbatzeko kide izateko?

- Batez ere dedikaziva eta gustua kantatzeko orduan. Ahots ona izatia baino gehixo, sentimendua ipintzia da kontua. Gustatzia eta gustuakin kantatzia.

Zein abesti mota kantatzen dituzue?

- Hori izan da neretzat gauzarik polixena ze danetik kantau izan dou. Hasi berpizkundetik eta gaur egungo musika modernora arte. Gaur eta bixar emango ditzugun kontzertuetarako banda sonorak landu ditzugu: "Ghost", "West Side Story", "Cantando bajo la lluvia"... Abesti melodikuak eta suabiak dia batez ere.

— Bost urte eta gero, zein balorazio egiten duzue?

- Oso positibua. Egixa esan nik ez naban pentsatzen hona ailegauko ginanik. Toki askotan ibili gera kontzertuak ematen: Lasarten, Oiartzunen, Bergaran, Donapaleun...


BEGOÑA
GABILONDO





Leoncio

Vicorio ViccuAio




Bur_gosen Bjaioa da, Quintanilla de las Virias herritxoa. Herria benetan, 20 bizilagun baino ez zituela esan

baitigu Leonciok.

Duela 42 urte iritsi zen Elgoibarrera. Lanera etorri zen, beste asko bezala. Construcciones Ziaran lantegian hasi zen montatzaile bezala. Lanaz aparte bazegoen Elgoibarrera etortzeko beste arrazoi bat. Arrebak 6 urte zeramatzen Elgoibarren bizitzen eta "bera bertan bizi zenez, ba, bidea erraztuta neukan". Gaur egun jubilatuta dago Leoncio. "Danobaten montadore bezala lan egin eta aurtengo uztailean jubilatuta naiz".

Aseensión Burgos Gonzalezekin dago ezkondua eta bi seme-alaba dituzte: Angel Mari eta Ana Isabel. Gustura bizi da Elgoibarren. "Etorri nintzenez ez nuen aldaketa handirik igarri; arrebak hemen bizi izateak asko lagundu zidan. Hasieran gurasoak han, ni eta arrebak hemen... Gogorra izan zen gurasoak gaixotu zirenean batez ere. Baina sarri joan izan naiz herrira, gurasoek etortzerik izan ez dutelako".

2.00



ILERO EXPCEId
biciala agentziak
babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 1 2

Margarita Calvo Soro

[1908-1988]



- 1908ko otsailaren 22an jaio zen Balear Irletan, Mallorcan.
- Umea zela Errioxako Arnedo herrira joan zen. Bertako eskola publikoetan egin zituen gaztetako ikasketak.
- 4 anai-arreba ziren, bera gazteena.
- Geroago hiru ahizpek eta amak modista tailerra eduki zuten. Ikasle askori erakutsi zioten josten. Lan asko egin zituzten herrian bertan eta kanporako ere bai.
- Santos Sotarekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten.
- Senarrak 1943an oposizioan Elgoibarko Udaleko idazkari postua lortu eta bi urte beranduago Elgoibarrera etorri zen familia osoa.
- Margaritak familia aurrera ateratzeko, lan asko egin zuen jostun bezala. Herriko eta erbesteko gazteak eduki zituen ikasle modura eta bezero asko eskuratu ere. Enkarguzko lan onak eginez izen ona lortu zuen.
- 1936tik geroztik Elgoibarrera etorri zen lehenengoetariko familia izan da Margaritarena. Seme batzuk erbestean bizi diren arren oso ezagunak izan ziren herrian.
- Margarita emakume borondatezkoa izanik, ez zuen kalera irteteko denbora askorik izan. Bere bizimodua lanak hetetzen zuen.
- Normala den bezala, behin familia aurrera atera eta gero, atsedenerako asti gehiago izan zuh. Errioxako Arnedoko senitartekoak ikusteko bidaiak egiteko aprobetxatu zuen.
- Gogokoak zituen pasiatzea eta irakurtzea.
- 1988ko maiatzaren 16an hil zen 80 urte zituela.

Juanito Gorostiza

AZALEA

eclertginfzet

MARI KARMEN BEREIARTUA

**Estetizista
Bisajista
Masajista**

EGIOZU AURRE

NEGUARI1

Trenbide kalea, 3,
behea (estazio parean)
Tel. 74 03 10

KEM.L-1¹,N Belardenda

m-s\

*Estuasuna, antsietatea, depresioa, 4
lo eza, tabakismoa, loditasuna,
fobiak,... tratatzen laguntzen dugu.
Zatoz, ez zara damutuko!*

NATUROPATA - Programazio **neurolinguistikoa**
(Practiccioner eta Masterra) - **MASAJEA** - **REIKI**
Osate naturalaren USUI sistema

San Bartolome 25 • Tel: **744031** • ELGOIBAR



A

ste honetako erretratua 1947ko urriaren 19koa da. Urte hartan urriaren 19an Domund eguna ospatu zen eta igandean 50 urte beteko dira erretratu hau atera zenetik. Erretratuko neskak hauek misioetarako dirua biltzen ibili ziren. Jantziengatik ikus daiteke, "txinonito" en eta beltzen aldeko diru-bilketa izan zela.

Maite Vallejo esan digunez, erretratua Don Antonio Arrillaga zenaren klinikako baratzean aterata dago.

Ikus dezagun zein **diren erretratukoak:**

Atzean tente, ezkerretik hasita:

Miren Beloki, Arantza Etxaniz, Agurne Etxaniz, Karmele Gabilondo, Karmentxu Azkue (t) eta Miren Opakua.

Bigarren ilaran: **Maria Luisa Urrutia eta Celia Juaristi.**

Eserita: **Isabel Aizpitarte, Maite Vallejo, M. Dolores Iriondo, Mari Tere Galdos eta Arrate Ulazia.**

OUSO TRBERNA

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

**-IGUNeko MENUIK-
-LFIRUNBOTETR-**

Rabak • Olagarroa • Fritoak

-GRUEZ-

Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

- Nteriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntmak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

**ESK11 EZI1ZU RURREKONTUR
INOIRKO KONPROMEZUR1K GABE!**

Ordutegia: Rstelehenetik ostiralera 7:00-22:38
Larunbatetan 9:00tik aurrera



"Eskalalln hurua hotz eukitzio da inportantia"



Joseba Elustondo

- Adina: 17
- Zer ari zara ikasten? IMHn Modulua. Ekipo industrialen man tentenimientua eta montajia.
- Zapatuko parranda ala domekako mendi irteera? Zapatuko juergia.
- Beste kirolik egiten duzu? Lehen mendiko bizikletan ibiltzen nitzan baina gaur egun ez.

—Espero zenuen Elgoibarko Eskalada Txapelketa irabaztea? - Ez. Partzipatziarren jun nitzan batez ere. Lagun arteko konpetizio modukua izan zan ze egunero eskalatzen ibiltzen geranok hartu gendun parte. Hau izan da lenengo txapelketia. Lehenao ez naiz konpetitzen ibili. Oso desberdina da bakarrik eskalatzen zaozenian edo konpetitzen. Askoz nerbiosuo zaude. Jendia zuri begira dao eta horrek presionau eitzen zaitxu.

— Zer-nolako maila ikusi zenuen?

- Ba danak antzera xamar gabiz. Nik azkenengo presia ikutu nabalako irabazi naban. Goizian adibidez, eliminatoriak ein ziazen baina ez zaban askorako balio izan ze ni eta beste bi jausi ein ginan. Gero finalera danak sartu ginan.

Zein izan zen txapelketan egin behar izan zenutena? - Bia bat zauan lehenaoetik ipinitxa eta gehixen eitzen zabanak irabazi eitzen zaban. Desplomia pasau eta gero tetxuan azkenengo presia ikutzia zan kontua.

Zeren arabera dago zailtasuna?

- Bidia lehenaoetik ez badozu ezagutzen beti da zaila. Gero presak ere zaila eta erretzauak daude. Presa batzuetan bi atzapar sartzen diaz, beste batzuetan hiru... Badaoz eskuakin helitzen dianak... formian arabera izaten da.

- **Beste txapelketaren batean parte hartzeko asmorik?** - Ez. Ez jata konpetiziva gustatzen. Eskaladia nerretzat ondo pasatzeko modu bat da.

— Egin duzun biarik zailena?

- Araotzen adibidez, 7a, 7b edo 7c. Inoiz 8a ere ein izan dot. Normalian 7b

edo 7c zailtasuneko bietan ibiltzen naiz.

— **Zein da eskalatzen hasteko jakin behar den oinarrikoena?** - Lelengo dirua euki bihar da. Eta teknikoki, ekilibriua mantentzen jakin, flexibilidadia landu, burua euki eta indarra landu. Batez ere intuizioa euki.

— **Non ibiltzen zarete eskalatzen?**

- Normalian taldetxo bat juten gera arratsaldero Oñatira, Araotzera. Astebukaeretan ere Etxaurira edo RigIosera juten gera, ixa asteburu guztietan. Nahiko bizi atuta gaude eskaladiakin. Gainera tokiak ezagutzen diaz eta paisajia ikusgarrixa da. Rokodromua, berriz, entrenatzeko eta serie kokretu batzuk igo eta jaisteko eta erresistentzia hartzeko izaten da.

Erresistentzia lantzeko ariketa konkreturik egiten duzue? - Ez. Eskalatzen hasi aurretik estiramentuak. Baina erresistentzia baino inportantiaua burua ondo argi eukitzia da. Arriskua ondo neurtu bihar da eta burua hotz mantendu.

— **Askotan jausi zara eskalada egiten?** - Bai baina ez jata ezer pasau. Sokatik zintzilik geratu izan naiz, lurretik oso gertu. Oso inportantia da lotuta jutia, harrizak soltiak badaoz kaskua ipintzia eta zure laguna "aI loro" eotia.

— **Izotzean eskalatu al duzu sekula?** - Ez. Ordesan, Kataluinian, Lerdan, Valentzian, Picos-en eta Pirineuetan ibili naiz baina neguan elurra eta izotzak ez. Aurtengo neguan izotzian hasteko asmua daukagu. Bada kitx desberdinak diala izotzian eta haitzian ibiltzia, politxaua igual.

K I R O L A L B I S T E A K • K I R O L A L B I S T E A K

• Nicolas Jimenez, Gipuzkoako Harate txapelduna

Joan den domekan Olaizaga Kirol taldeko lau karatekak Oreretan izandako Gipuzkoako Promozioiko Karate txapelketan parte hartu zuten. Mikel Armendia, Cristian del Rio, Jon Vazquez, eta Nicolas Jimenez izan ziren Elgoibarko ordezkariak. Nicolas Jimenez fin aritu zen txapelketan eta kata delako arloan, hau da, teknikaren atalean, Gipuz-

koako txapelduna izan zen. Dena den, Nicolasen entrenatzaileak esan digunez, "bikain aritu zen arren, bere esku izan zuen sailkapen hobea egitea; bigarren sailkatuari alde handiagoa ateratzeko aukera izan baitzuen". Borroka neurtzen den arloan, 70 kilogramo gorako kategorian Nicolas Jimenez hirugarren postuan geratu zen.



18 talde daude XIX. Urasandiko Futbito Txapelketan

Joan den domekan eman zitzaion hasiera Urasandiko Futbito Txapelketari. Areto Futboleko kluba da txapelketa honen antolakuntzaren arduraduna. Partiduak igande goizetan jokatzen dira Olaizaga kiroldegian. Aurtan 18 taldek eman du izena.

Arautegia

Urasandiko Futbito txapelketa arautzen duen 25 puntuz osatutako arautegia dago. Taldeak gehienez 12 ki-dez osatuta egon daitezke eta izena

ematerakoan talde bakoitzak 17.000 pta. ordaintzen ditu. Ordu-tegiari dagokionean, partiduen hasiera ordua bost minutu baino ezin daiteke atzeratu. Denbora hau pasatu ondoren, bi taldeetako bat 10 minutu beranduago heltzen bada jokatzeko aukera izango du baina 1.500 pta.ko isuna ordaindu eta gero. 10 minutuak pasatu ondoren eta taldea ez bada agertzen txapelketatik kanpo geratuko da. Horrelako neurritz beteta dago Urasandiko Txapelketako arautegia.



Spartak Braga taldea iaz bigarren geratu zen Kopan.

KIROL ALBISTEAK

• Elgoiharko XXIX. Xake Txapelketa

Zubi-Ondo Xake Elkarteak antolatuta, bihartik hasita, hilak 18 eta abenduaren 20ra bitartean, Elgoibarko Xake Txapelketa jokatuko da. Partidak larunbatetan, arratsaldeko 4etan izango dira Juan Mugerza kaleko 26 zenbakian. Infantil, jubenil eta senior mailak egongo dira. Liga modura, ordu eta erdiko iraupena izango du jokaldi bakoitzak.



EMAIT-ZAK

Futbola

Haundi 0 - Barakaldo 2

Elgoibar 2- Gazteak 1 (2. erreg.)

Urki 1- Pedrusko 4 (2.erreg.)

Arexabaleta 1- Elgoibar 1 (Oho. Jub.)

Gazteak 0- Elgoibar 2 (1. jub.)

Elgoibar 2 - Zarautz 1 (Jub.)

Elgoibar 2 - Eibartarrak 1 (Kad.)

Real Sociedad 5- Elgoibar 0 (Int.)

Oiartzun 5- Elgoibar 0 (Neskak)

Eskubalola

Unceta Elg. 35 - Legazpia 2 (Kad. nes.)

Ereintza 21- Pneumax Elg. 18 (Kad. mut)

Ereintza 24- Tecnomeca Elg. 27 (Jub. mut.)

Zarautz 16- Elgoibar 18 (Seniorrak)

Areto futbola

Txanela 3 - Elgoibar F.S. 3 (Autonomikoa)

Zarautz 2- Elgoibar F.S. 3 (1. maila)

AGENDIL

Putbola, Mintxetan

Larunbata, 18

12:00 Elgoibar - Sporting (Jub.)

16:30 Elgoibar - Astilleru (Oho. jub.)

Igandea, 19

10:00 Zumaia-kako - La Salle (Oho. jub.)

12:00 Elgoibar - Sporting (Int.)

16:00 Pedrusko - Aurrera Ondarroa

(2. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 18

16:00 Unceta Elg. - Bergara (Kad. nes.)

17:30 Elgoibar - Allerru (Seniorrak)

Areto futbola, Kiroldegian

Ostirala, 17

22:00 Elgoibar F.D. - Iraurki Kirolak

(1. maila)

23:08 Elgoibar F.S. - Laskurain (Autono.)

R. 21..«

Radio Minimal

Mekez ematen ditu pausoak **Mi clordoka** batek. Leunki hartuz gero jolas egin dezake. Mugimendu bortitz baten aurrean, ordea, burua ezkututzen du. Chicagon **TORTOISE** izeneko talde interesgarri hau aurki dezakegu. Musika esperimentalarekin jokutzen duen talde garrantzitsuenetariko baten aurrean gaudela esateak ez luke jende asko asetuko baina esperientzia polita izan daiteke talde honen unibertsoan murgilizen den edonorentzat. Post Rock izeneko etiketa alu baten azpian izkututzen da seikote hau. Samplerrak erabiliz eta perkutsio desberdinez homituta (bateria, marimbak, bibrafonoak...) izugarrizko atmosfera intimista sortzen dute, ikututxo elektronikoak dituelarik eta beti lasaitasunaren menpe jokatu. Perkutsio eta soinuari buruz emandako informazioa talde hau entzuteko bi arrazoi baino ez dira. Entzun ondoren, hamar arrazoi gehiago atera daitezke. Bon voyage.

Iban Urizar
Julen II



Hilaren 23an hasiko da zine kluba

Datorren ostegunean, hilak 23, Ongarri Zine Klubak 97-98 denboraldiko lehen pelikula eskainiko du. "La tregua" filme italiarrarekin irekiko da aurtengo eskaintza. Lehen egunean, Zine Klube-ko arduradunek inkesta moduko bat egingo dute ikusleen artean ostegunetako zine emalnaldiaren ordutegiari buruz. Jendeak zein ordutegi iruditzen zaion aproposena proposatu ahal izango du.

Ongarri Zine Klube-ko arduradunek pretsaurrekoan adierazi bezala, "hilaren 16rako geneukan pentsatuta zine klubarekin hastea, baina azkenean 23an hastea aproposago iruditu zitzaigun". Lehen egunerako ez dute, iaz bezala, inongo ekitaldi berezirik prestatu. "Iaz Diego Gabln izan zen Herriko Antzokian, zine klubaren inaugurazio modukoa izan zen ekitaldian. Aurtun lehen egunerako pertsonaia ezagunik egongo ez bada ere, ez dugu bazterten urtean zehar pertsonaiaren bat ekartzeko aukera". Herriko elkarte ezberdinekin elkarlanean antolatutako zine emanaldiak ere izango dira aurtun.

Aurtun emango diren filmeek "badute kohesio moduko bat". "La tregua" pelikulan, iaz Italiako David Donatelli saria jaso zuena, eta "Box of Moonlight" filme amerikarrean J. Tuturro antzezleak egiten du lan. Aktore honen bertsatilitatea ikusteko helburuarekin programatu ditu On-

garrak aipatutako bi pelikulak. Nazismoaren inguruan, berriz, "La tregua" eta "El ogro" pelikulek jarduten dute. Azkenik, Cimino zuzendariaren "Sunchaser" eta "Box of Moonlight" pelikulak `errepideko' sailekoak direla esan daiteke.

Berrikuntzen artean bono bat egiteko asmoa dute Ongarrikoek. 10 pelikulatarako bonoa izango da. Bonoa egin nahi dutenek 74 20 21 zenbakira dei dezakete.

Emankizun guztiak gaueko 22:15an hasiko dira. Aste batzuetan ostegunetan bakarrik egongo da pelikula eta beste batzuetan, berriz, ostegun eta ostiraletan. Iaz 24 pelikula eman ziren urritik maiatzaren amaierara bitartean eta 2.500 bat lagun johan zirela kalkulatu dute Ongarrikoek. Zine klubak 600.000 pta.ko laguntza jasotzen du Udal Kultura Batzordetik.

FILMEEN EGUTEGIA

URRIA

23, osteguna, "La tregua"
30, osteguna, "Box of Moonlight"
31, ostirala, "Box of Moonlight"

.AZA.ROA

6, osteguna, "Sunchaser"
13, osteguna, "El ogro"
14, ostirala, "El ogro"
20, osteguna, (Errotatxoren Astearen barruan antolatuko filmea)



Iñaki San Martin eta Iñaki Agirrek Ongarri duen lokalean eman zuten pretsaurrekoan.

Susana Duran

HOGEIKO A

I KASLEA - 17 URTE

1- Merez al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza? - Bai, bizitzan gauza politikak daude eta nere us-tez aprobetxatu egin behar da. Gauza onetan pentsatu behar da zeren bestela ezin da bizi. Herri txiki bat da eta denek dakite zer egiten duzun baina jende jatorra da eta ambiente asko dago. Oso pozik bizi naiz Elgoi barren.

2 - Eutanasia praktikatu al zenuke familiako batekin? - Sufritzen baldin badago, bai, batez ere berak eskatuko balu.

3 - Hil eta gero? - Betiko galde-ra, ez dakit. Nik reenkarnazioan sinesten dut baina ez dakit. Katolikoa naiz baina nere zalantzak ditut.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak. Ez nago ados baina azkenean denok egiten dugu gauza bera, lehenengo gure buruari begiratu eta gero besteez arduratu.

5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Amari, amamari eta lagunei.

6 Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? Nere anbizioa enpresa batean lan egitea eta bizioa gaupasak egitea.

7 - Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik? - Apolitikoa naiz, ez dut politikan sinesten eta ez nuke botorik emango.

8 - Zeren aldeko/kontrako manifestaldian hartu zenuen parte azkenekoz? Intsumisioaren aldeko batean.

9 - Euskalduna naiz eta harro nago? - Bai, oso harro nago euskalduna izateagatik.

10 - Zerk galarazten dizu loa? - Jendearen inbidia eta harrokeriak asko pentsarazten didate, bizitzatik kendu egingo nituzke.

11 - Gaztetxean izan al zara? Bai, oso ondo dago. Azkenean lortu dute gazteentzat tokia ipintzea,

beharrezkoa zen.

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? - Ez, nahiko alaba ona naiz.

13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Gehien konfidantza asko ematen didatela eta gutxien ikasketetan asko exijitzen didatela.

14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan? Nire ohea egiten dut bakarririk.

15 - Alkoholik gabeko jairik?

- Bai, noski. On-do pasatzeko ez da alkoholik behar.

16 - Irakurri duzun azken liburua? - Isabel Allenderen "Eva Luna".

17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Sexua maitasunarekin. Sexua sexuagatik ez zait gustatzen.

18 Birjinitatea traba ala bertutea? - Ez da traba ez eta bertutea ere. Ez da konplejurik euki behar, bakoitzak ikusiko du noiz den bere momentua.

19 - Homosexual batek maite

zaituela esango balizu? - Pasatu zait eta, egia esan, harrituta geratu nintzen. Errespetatzen dut baina asko txokatu ninduen.

20 - Sinesten al duzu betirako maitasunean? - Pertsona egokia aurkitzea oso zaila da baina posible da. Nere amamaren kasua ikusten dut etxean.



**INTERESEKO
TOKI**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko .. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak.. 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea .. 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua .. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua .. 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .. 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa .. 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Bdtokia .. 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Espatior ... 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

24 BaRREN

**17
ostirala**

22:15 ZINEA
 "El mundo perdido"

22:30 ITXAROPENA
 ABESBATZAREN
 KONTZERTUA
 Plaza Handian

**1
arun ata**

19:30-22 15 ZINEA
 "El mundo perdido"

20:00 ITXAROPENA
 ABESBATZAREN
 KONTZERTUA
 Plaza Handian

i gandeia

12:00 UDAL MUSIKA
 BANDAREN
 KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

19:30-22 15 ZINEA
 "El mundo perdido"

**2
astele ena**

22:15 ZINEA
 "El mundo perdido"

**23
osteguna**

22:15 ZINE KLUBA
 "La tregua"
 Ant olatzailea: Ongarri
 Zinekluba

**24
ostirala**

22:15 ZINEA
 "Seeretos del corazOn"

• • • 11 • ■ • • III al III 111 ■ II II ■ • • • • III II R

**11
NE**



El mundo perdido
 Parke Jurasikoa desagertuta dagoela uste dute gehienek baina Malcoln doktoreak dinosaurioak askatasunean hizi direla deskubritzen du. 13 zona deitzen den tokian bizi dira. Parke Jurasikoko nagusia izan zenaren ilobak hartuko du oraingo parke barriaren ardura.

Zuzendaria: Steven Spielberg
 Antzezleak: Jeff Goldblum, Julianne Moore, Pete Postlethwaite

■ III ■ • • 11 • • • III R 111 1a • • • • ■ • III • • • • ■ •

• **Udal Musika Bandapen kontzertua**

Igandean, hilak 19, Musika Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian eguerdiko 12:30an. Joko dituzten obrak honako hauek dira: "Inquietudes culturales", "El caballo de bronce", "Carpenters in concert", "Sbufflin'rag" eta "El tambor de granaderos". Jose Antonio Osorok zuzenduko du kontzertua. Hurrengo emanaldia azaroaren 23an izango da Santa Zezi-liaren omenez.

• **AEK egunerako autobusa**

AEK Euskaltegiak hilaren 26an Portugalen izango den AEK Eguna 97 jairako autobusa antolatu du. Egunean zehar erromeriak, kontzertuak, kale antzerkia, bertsolariak eta bestelako ekintzak egongo dira. Joan nahi duenak AEK euskaltegian edo Oiz Mendi eta Karobi tabernetan eman dezake izena hilaren 24a baino lehen. Autobusa Sigmako zubitik irtengo da goizeko 9:45ean.

• **Trianoko mendietara irteera**

Morkaiko Mendizale Elkarteak Trianoko mendietara irteera egingo du datorren larunbatean, hilak 25. Irteera goizeko 8etan izango da. Izena emateko elkartetik pasatu edo 74 02 09 zenbakira deitu.

• **Rxaropenapen lehen kontzeptua, gaur, gaueko 22:30an**

Itxaropena abesbatzak 5 urte betetzen ditu sortu zenetik, 1992ko urrian, hain zuzen. Gaur egun 30 bat kidek osatzen du abesbatza eta Nerea Ugarte azpeitiarra da zuzendaria. Abesbatza honek musika munduan sakondu nahian, era guztietako abesti motak kantatzen ditu. Ildo honetatik, gaur, hilak 17 eta bihar, hilak 18, eskainiko dituzten kontzertuetan honako obra hauek interpretatuko dituzte: "Singin'in the rain", "White Christmas", "West side story", "Born Free", "Ghost" eta "The lion King". Teklatuetan Silvia Hernandez arituko da; Iker Osoro kitarra jotzen; baxuan Aitor Rosario eta perkusioarekin Gorka Mujika eta Gorka Regil. Emanaldiak Plaza Handian izango dira.



ONGARRI
zine kluba

I211JCH1111

FARIVIAZIAK

Egunez Gauez

13 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

19 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

20 Bidasolo Zabaleta

21 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

22 Etxeberria Escala
(Rosario)

23 Bidasolo Bidasolo

24 Yudego Yudego

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

19 igandea Idarraga

Salerosketak

• SALDU*

- ◆ Bi hilabeteko koker txakurkumeak salgai. Tr 75 60 25
- ◆ Sero Sette markako esku soinu txiki pmfesionala saltzen dut. Tr 75 61 47 (Unai)
- Baserrian jasotako urrak eta intxaurreak saltzen dira. Tr 74 23 30 (Eusebi)
- Merlin 350 Trialeko motorra saltzen da. Tr 74 26 32 (Txomin).
- Idazmakina elektronikoa salgai. 74 44 43
- Vespa ntotorra saltzen dut. tr 909 82 22 59

Lana

* ESKAINTZA •

- ◆ Neska euskalduna, beliat dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Hobe esperientziaduna. ✓ 74 12 33 (21:00etatik aurrera).
- ◆ Neskatala bat zaintzeko neska euskalduna behar da. -zr 74 41 54 (Mertxe. Gaeuz).
- ◆ Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar cla. Goizeko 9etatik arratsaldeko Setara. v 74 29 30 (arratsaldeko 3etatik 4etara).

• ESKAERA*

- * Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 1r 74 25 42.
- ◆ Barne K(MterziO tituloduna dendar lanetarako edo umeak zaintzeko eskaintzen da. tr 74 10 09.
- Ileapaintzqie Mulodunak edozein lan egingo luke. Tr 74 35 43 (Kristina).
- ◆ Gutxitu Fisikoen Hezitzaile eta Klinika Laguntzaile tituloduna pertsona nagusiak edo haurrak zaindu edo beste lan batzuk egiteko prest. Tr 74 34 68
- ◆ Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da. Egun osorako, Tr 74 32 98.
- 29 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. a 19 21 28 (Asun).
- ◆ Lokalak, tabernak eta antZekoak garbitzeko emakurtea eskaintzen • da. ar 74 18 613
- Pertsona nagusiak zaintzeko emakumea eskaintzen da, esperientziarekin. Tr 74 04 86 (Victoria)

Partikularrak

- ◆ Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak hartuko nituzke euskaraz. Tr 74 27 78 (Sara).
- Lizentziatuak fisika eta kimikako klase partikularrak emango tuzke. Maila guztiak. v 74 43 98/74 08 09 (Marian).
- ◆ Marrazketa tekniko eta diedrikoko klaseak ematen dira. 1r 74 43 98 (Iñaki)
- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. ir 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Tr 74 09 72 (Garikoitz)
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. tr 74 21 65 (Javi)

Bestelakoak

- Taberna traspasatzen da Deban. Martxan dago eta bezero onak ditu. Orain dela gutxi berritua. Te 19 19 54
- Ileapaindegia alokatzen da Bergaran. 1r 76 56 85.
- ◆ "Adidas One" txandal urdin baten goiko parte galdu dut Ikastola edo Plaza aldean. 14 tailakoa da. v 74 22 30.
- Hamster bat oparitzen dut kaiola eta guzti. Tr 74 25 17.
- Merkantiak, bidaiariak eta laguntzaileak garraiatzeko kapazitazio tituloak dauzkat. Interesatuak deitu 74 38 15 zenhakira.
- Hilaren 8an helarritako bat galdu nuen. Urrezkoft da eta perla hat dauka. Topatzen duenak dei dezala 74 14 46 telefonora.
- Entrenatzaile bat behar da Ikastolako 5. mailako neskak futbollean, saskihaloian eta eskubaloian entrenatzeko. Lehenbailehen. Tr 74 33 39
- 62 metro karratuko Jokala alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an. Tr 74 18 54. (945-27 78 08).
- Postetxeko hormaren kontra, kotxesila haten burbuia ahaztu nuen igande eguerdian. Norbaitek aurkitu badu, mesedez dei dezala 74 14 52 telefonora.
- Irailaren 27an Herri Institutuan katu siames hat galdu zen. Buztan

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrora. Berritua. Tr 908 57 95 89.
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekin. a 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin. Tr 74 22 25 (Arrate)
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. Tr 74 02 24.
- Benidonn-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekita, garbigailua eta telebista ditu eta hondartzako lehen ilarin dago. Tr 74 20 31.
- ◆ Pisua edo buhardila hat alokatuko nuke. Ez zait inporta herritik urrun badago. Tr 74 43 10 Cristobal.
- *Pisua salgai Pedro Mugeruzan. Tr 74 04 56 (Maria)

Garajeak

- Pista beltzean garaje itxia alokatzen dut. Tr 74 03 81/ 74 15 01 (gaeuz)
- Garajea alokatzen da San Roken, Aterpe tahernaren azpian. Tr 74 33 39.
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. a 74 05 49 / 74 09 09
- Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sohrepisoa dauka. ir 74 01 33
- Garajeu salgai Juan Mugerza kalean. a 74 12 04 (20:(0-22:00)
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitonon. Tr 74 34 10

Agurrak

- ◆ Zorionak **Jesus Ruizi** hilaren 15ean urteak hete zituelako. Ainhoa eta Nerearen partez.
- Zorionak **Marivi Ondarrerri** hilaren 16an urteak bete zituelako. Bere gurasoen eta itoba Ionen partez. Besarkada handi bat.
- ◆ Zorionak **M, Angelesi** asteartean, hilak 21, 42 urte beteko dituelako. Familiaren partez. Datozen urteetan horrela jarrai dezazula opa dizugu!
- Zorionak **Silvia Hernandezi** hilaren 21ean 18 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Eulaii Morenori** hilaren 19an urteak beteko dituelako. 19 besarkada Maria, Oihane, Maialen eta Ander, udako

laguntxoan partez.

• Zorionak, Butanito! Espero dugu igandean zure arnasetako oparia (eskeletoa) jasoko duzula. Ondoxa paxa mahats paxa! Zure lagunon partez.



◆ Zorionak **Garazi** Kaltzakortari hilaren 22an urte bat beteko duela. Gurasoen partez.

* Zorionak **Itziar Ulaziar** hilaren 15ean urteak hete zituelako. Ikastolako 6 D-ko ikasleen partez.



◆ Zorionak **Iosu Etxanizi gaur**, hilak 17, 2 urte bete dituelako. Ainhoa eta Nerearen partez.



• Zorionak **Kristina Martini** hilaren 22an 2 urte beteko dituelako. Guraso, osaba eta amaren partez.



• Zorionak **Mikeli** hilaren 12an 6 urte hete zituelako. Musu haundi hat farnilia osoaren partez.



• **Mister "Kilkertxo"**ri mila zorion eta musu haundi hat etxeko sendi osoaren partez.



• Zorionak **Iñakiri** hilaren 14an urteak hete zituelako. Familiaren partez.



Ez duzu **98**ko
Gida
Komertzialetik
kanpo geratu nahiko,
ezta?



Zure enpresa, denda edo lantegia gidan azaltzea
nahi baduzu, deitu **BARRERA**

Tel./Faxa: 74 37 04